

Merkaturako Aurretiko Kontsultaren Ondorioen txostena

DSAZA proiektua

DSAZA: Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimenduna

AURKIBIDEA

1	Sarrera.....	3
2	Proiektuaren deskribapena.....	4
2.1	Aurrekariak	4
2.2	Proiektuaren helburuak.....	6
2.2.1	Helburu orokorra.....	6
2.2.2	Helburu espezifikoak	6
2.3	Erronkaren deskribapena	7
2.4	Egungo egoera	8
3	Merkaturako aurretiko kontsultaren xedea.....	8
3.1	Deialdia argitaratzea.....	8
3.2	Proiektuari buruzko informazio jardunaldiak	10
3.3	Merkaturako Aurretiko Kontsultaren mugarriak.....	10
3.4	Egindako galderak.....	11
3.5	Talde tekniko arduraduna.....	11
3.6	Jasotako proposamenak	11
3.7	Proposamenen ebaluazioa	14
3.7.1	Eztabaida teknikoa: elkarrizketak.....	14
4	Merkaturako Aurretiko Kontsultaren emaitza	15
5	Ateratako ondorioak	21
I.	eranskina. Merkatutarako Aurretiko Kontsultaren formularioa	23
II.	eranskina. Egindako elkarrizketen aktak.....	30

1 Sarrera

Donostiako Sustapena SA (aurrerantzean, Donostia Sustapena) hiriaren garapen ekonomikoari lotutako berrikuntza bultzatzeaz arduratzen den udal erakundea da, Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako eta berrikuntzarako agentzia den heinean. Esparru horretan, Donostia Sustapenak funtsezko eginkizuna du berrikuntza ekosistemako eragileak lotzen dituzten ekimenen katalizatzaile gisa. Eragile horien ageri dira, besteak beste, enpresak, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta gizarte eragileak.


Haren jarduera eremuak Donostia hiri osoa hartzen du, eta arreta berezia jartzen du zenbait alorretan, hala nola ekintzailtza berritzaileari laguntzen, enpresak sendotu eta hazten, inbertsioak erakartzen, berrikuntza publikoa bultzatzen eta proiektu berritzaileak garatzen. Era berean, konpromiso sendoa du talentua garatzearekin eta atxikitzearekin, batez ere talentu gazteari dagokionez, baita hiri ekonomia sustatzearekin ere, betiere berrikuntzan, digitalizazioan eta jasangarritasunean oinarritutako ikuspegia kontuan hartuta. Testuinguru horretan, Donostia Sustapenak Eraldaketa Digitaleko Plan bat diseinatu du arlo kritikoei heltzeko. Arlo horien artean nabarmentzen dira, hain justu, prozesuak automatizatzea, herritarrei ematen zaien arreta hobetzea, zibersegurtasuna, datuetan oinarritutako erabakiak hartzea eta erakunde kultura digitala garatzea.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Donostia Sustapenak erronka estrategikoei erantzuteko soluzio berritzaileak identifikatzera bideratutako ekimenak dinamizatzeko prozesu bat bultzatu du. Hain justu, prozesu horren ondotik egin da Merkaturako Aurretiko Kontsulta hau. Hori horrela, merkatuari buruzko informazioa biltzea, eskura dauden soluzioen egoera teknologikoa ezagutzea eta eragile ekonomiko eta teknologikoen parte hartzea sustatzea dira kontsultaren helburuak, eta, horri esker, Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren arloko etorkizuneko jarduerak behar bezala definitzen lagunduko da.

Txosten honek Merkaturako Aurretiko Kontsultaren prozesua jasotzen du, deialditik Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoaren espedienteko zehaztapen proposamenera arte.

Merkaturako Aurretiko Kontsulta gauzatzeko, kontsulta gidatu ahal izateko zenbait ekintza ezarri ziren: kontsultaren deialdi publikoa egitea, enpresek parte hartzea, informazioa prozesatzea eta jasotako proposamenak aztertzea. Prozesu horretan, bereziki zaindu zen publizitate, berdintasun eta gardentasun printzipioak betetzea.

Ondorioen txosten hau Merkaturako Aurretiko Kontsultaren amaiera gisa aurkezten da. Dokumentua ordena kronologikoari jarraikiz egituratua da: Merkaturako Aurretiko Kontsulta, prozesua egikaritzea eta emaitzak. Ondorioen dokumentu honen helburua da Donostia Sustapenak planteatutako erronkari erantzutea.



1. irudia. Merkaturako Aurretiko Kotsultaren prozesua

2 Proiektuaren deskribapena

2.1 Aurrekariak

Donostiak ahalegin iraunkorra egin du azken urteotan, eta, horri esker, berrikuntzaren esparruan erreferentziatzeko hiri bihurtzea lortu du. Posizionamendu hori, besteak beste, Donostia Sustapenak ondoz ondoko berrikuntza planak abiarazteari esker gauzatu da. Plan horiek inbertsio garrantzitsuak ekarri dituzte —5,8 milioi euro 2024an edo 6 milioi euro 2025ean—, berrikuntzan, zientzian, talentuan eta ekintzaitzian oinarritutako hiri estrategia bat bultzatzera bideratuta.

Gaur egun, 190.000 biztanle inguru ditu hiriak, eta 9.360 milioi euro inguruko barne produktu gordina. Tokiko enpresa sarea 15.384 enpresak eta 17.930 establezimenduk osatzen dute. Zerbitzuen sektorea motor ekonomiko nagusi gisa finkatu bada ere, Donostian nabarmentzekoak dira jakintza intentsiboko enpresa zerbitzuak (sektore horrek biltzen dituen jardueren negozio eredu, jakintza sortzea, metatzea eta hedatzea da oinarria). Hain zuzen ere, enpleguaren % 35,1 biltzen dute, eta % 48ko ekarpena egiten diote barne produktu gordinari (hots, 4.487 milioi eurokoa). Jakintza intentsiboko enpresa zerbitzuen artean, I+Gko jarduerak nabarmentzen dira: 6.794 pertsona enplegatzen dituzte gaur egun (% 46,6 emakumeak). Gainera, hiriak Zientziaren Euskal Sareari lotutako 30 eragile dauzka dagoeneko.

Hori guztia zientzian eta jakintzan oinarritutako eredu sozioekonomiko baten aldeko apustu jarraituaren ondorio da, eta zientzia eta berrikuntza polo gisa finkatzeko aukera eman dio hiriri. Horren erakusgarri da gaur egun biztanleko I+Gko inbertsioa 1.936 €-koa dela (EAEko batezbestekoaren bikoitza), eta I+Gko inbertsioak barne produktu gordinaren guttizkoaren gainean duen pisua, berriz, % 3,7koa (Gipuzkoan % 2,6 eta EAEn % 2,16).

Donostia Sustapenaren eginkizun nagusiak dira, besteak beste, tokiko ekonomia dinamizatzea eta aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen lagunduko duten proiektu berritzaileak bultzatzea. 2023-2027 aldirako Gobernu Programaren esparruan, lan hori bat dator zuzenean Donostia Zientzia eta Jakintzaren Hiri gisa posizionatzeko apustu estrategikoarekin. Ikuspegi horrekin bat etorritik, Udalak harreman estua du unibertsitateekin eta goi mailako ikasketa zentroekin, talentua prestatzeko eta ikerketa zientifiko eta teknikoak garatzeko funtsezko eragileak diren aldetik.

Eskualdearen ikuspegitik, Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimendunaren (DSAZA) proiektua Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren barruan dago. Estrategia horrek, hain justu, funtsezko palanka gisa identifikatzen ditu zerbitzu publikoak digitalizatzea, adimen artifiziala eta beste zenbait teknologia gaitzaile hedatzea eta gaitasun digitalak indartzea, lurraldearen lehiakortasuna eta gizarte kohesioa areagotzeko. Esparru horretan, Donostia Sustapenaren arreta sistemaren birtualizazio adimendunak eta laguntza zein dirulaguntzak kudeatzeko DSAZAK proposatzen dituen prozesuen automatizazio aurreratuak zuzenean laguntzen dute helburu horietan; izan ere, zerbitzu publikoaren eredu irisgarriago, efizienteago eta seguruago bat bultzatzen dute, datuen erabilera intentsiboan eta arduratsuan oinarrituta.

Gaur egun, Donostia Sustapena da berrikuntzari eta talentuari lotutako hiri strategiaren liderra. 48 pertsonako plantilla du, eta tokiko ekosistemaren funtsezko eragileetako bat da. Erakundeak ekonomia, ingurumen eta gizarte inpaktua duten berrikuntza proiektuak sustatzen eta katalizatzen ditu, eta, hala, indartu egiten da hiriaren garapen jasangarriari egiten dion ekarpena.

Donostiaren hazkunde eta garapen aukerak maximizatzeko, Donostia Sustapenak zazpi ildo estrategikoren inguruan antolatzen du bere jarduna:

1. **Udal berrikuntza publikoa bultzatzea.** Hiriaren erronketarako soluzio berritzaileak bilatzen laguntzea, eta, horretarako, prozesu berriak garatzea eta proiektu jasangarriak abiarazi eta kudeatzea lankidetzara publiko-pribatua baliaturik.
2. **Hiria ekintzaile berritzaileko nodo gisa bultzatzea.** Proiektu berritzaileen kopurua handitzea, eta, horretarako, ekosistemako eragileak dinamizatzea eta hiria aukera espazio gisa sustatzea.
3. **Donostia zientzia hiri eta berrikuntza plataforma gisa bultzatzea.** Zientziari eta berrikuntzari lotutako ekimen kopurua handitzea (horretarako, talentua garatzen, enpresetarako transferentzia teknologikoa bultzatzen eta aukera sektoreak indartzen ditu), funtsezko eragileen arteko lankidetzara eta konexio espazioak sortzearen bitartez.
4. **Lan aukerak sortzea kolektibo behartsuentzat, enplegu proiektu berritzaileen bidez.** Bertako talentu gaztearen garapen profesionala sustatzea, prestakuntza proiektuen eta proiektu berritzaileen bidez. Prestakuntzarako, enplegurako eta etxebizitzarako aukerak eskaintzea, eta gazteak enpresa sarearekin konektatzea eta haien trebetasunak indartzea.
5. **Tokiko talentu gaztearen garapen profesionalerako proiektuak bultzatzea.** Donostiako gazteekin konektatzeko espazioak sortzea, eta prestakuntzaren, enpleguaren eta etxebizitzaren arloan neurriak zabaltzea, gazteon talentuari eusteko.

6. **Hiria nazioartean posizionatzea, berrikuntzako hub gisa.** Donostia enpresa proiektu berritzaileak eta tokiko eta nazioarteko talentua garatzeko aukera espazio gisa proiektatzea, beste eragile batzuekin nazioartean konektatzeko estrategia baten bidez.
7. **Berrikuntza aukera berriak sustatzea hiri ekonomiaren esparruan.** Hiri ekonomia indartzea, eta, bide horretan, lehiakortasun hobekuntza sustatzearen eta berrikuntza, digitalizazioa eta jasangarritasuna bultzatzearen alde egitea.

Ildo estrategiko horiekin bat etorriz, Donostia Sustapena enpresa sareari laguntzeko zenbait lerro eskaintzen ditu, enpresa proiektu berritzaileak garatzeko laguntzak barne, helburu gisa hartuta enplegu kualifikatuaren sorrera eta transferentzia teknologikoa sustatzea. Era berean, ekintzaileei laguntza eskaintzen die beren ekimenak garatzen eta enpresa berriak sortzen, eta, hala, sendotu egiten da hirian garapen ekonomikoarekin eta berrikuntzarekin duen konpromisoa.

2.2 Proiektuaren helburuak

2.2.1 Helburu orokorra

Proiektuaren helburu orokorra da Donostia Sustapena administrazio aitzindari gisa sendotzea, eta, horretarako, zerbitzu publikoen soluzio aurreratu bat txertatzea, erabiltzaileei arreta emateko plataforma baten bidez, zeina gai izango baita erakundearen laguntzei eta dirulaguntzei loturiko kudeaketak modu eraginkorrean bideratuko dituen zerbitzu bat emateko. Plataforma hori funtsezko azpiegitura gisa eratu beharko da, eta haren gainean artikulatuko da erabiltzaileei arreta emateko sistema integral eta eskalagarri bat, erakundearen jardun eremuak barnean hartuta. Era berean, bat etorri beharko du administrazio publikoaren printzipio gidariekin, eta bermatu beharreko alderdiak izango dira erabiltzaileentzako izapideen sinplifikazioa eta efizientzia, kudeatutako datuen sendotasuna eta kalitatea, eta datuak babestearen arloan datuon osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea, baita araudia betetzen dela ziurtatzea ere.

2.2.2 Helburu espezifikoak

Interakzioa sustatzea erabiltzaileen eta erakunde publikoen artean, eta, horretarako, haien arteko hartu-emana posible egitea eta prozesu horiek erraztuko dituzten irisgarritasun tresnak eskura jartzea.

Prozesu administratiboak gidatzeko eta errazteko gai izango den **elkarrizketa eredu bat garatzea**, eta, hala, erakundeetan presentzialtasunaren beharra murriztea eta horietan arreta emateko denborak laburtzea.

Gorabehera kopurua murriztea: Giza esku hartzea murrizteak saihestu egiten ditu eskaeraren xehetasunak eta eskakizunak ez betetzezik edo komunikazioa desitxuratzetik eratorritako arazoak.

Informazioa zentralizatzea: Informazioa sistema zentral batean kudeatzek, iturria edozein dela ere, informazioa kontsultatzea, maneiatzea, banatzea eta ezabatzea ahalbidetzen du.

Gaitasun teknikoak hobetzea: Arreta eta kudeaketa adimenduneko sistema bat sartzek ahaleginak banatzea ahalbidetzen du, eta, hala, administrazioaren errendimendua areagotzen da, baliabide tekniko berberak erabiliz.

Segurtasuna eta gardentasuna areagotzea: Sistema automatiko batek informazioaren trazabilitatea eskaintzea ahalbidetzen du, eta segurtasuna areagotzen du; era berean, nahita edo nahi gabe izaniko manipulazioak saihesten ditu.

Egitura operatiboa optimizatzea: Sistema bat ezartzek informazio fluxu egonkor bat definitzea ahalbidetzen du, inplikatura dagoen datuaren eta prozeduren gobernu ziuartzeko, bai eta prozeduraren emaitza jakinaraztea ere.

Proiektuaren helburua da, berebat, emandako zerbitzuaren kalitatea modu transbertsalean hobetzea, eta, ildo horretan, eginkizun errepikakorrak eta oinarriko baliozkotzeko automatizatzea, giza errorearen marjina murriztea, irizpide teknikoak eta arau irizpideak aplikatzean sendotasuna areagotzea, eta informazioaren eta laguntza espedienteen kudeaketa fidagarriagoa, efizienteagoa eta trazagarriagoa ahalbidetzea.

2.3 Erronkaren deskribapena

Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimenduna (DSAZA) proiektuaren erronka da belaunaldi berriko sistema bat diseinatzea eta ezartzea Donostia Sustapenaren erabiltzaileei arreta emateko, zerbitzuen eta laguntzen birtualizazio adimendun oinarrituta. Proposatzen da formularioetan oinarritutako arreta presentzial, telefoniko edo digitaleko eredu tradizionaletatik hizkuntza eredu aurreratuetan (LLM) oinarritutako plataforma adimendunerantz eboluzionatzea, eta zerbitzu hori gai izatea elkarrizketa natural eta eraginkorak izateko herritarrekin, ekintzaileekin eta enpresekin. Plataforma horrek aukera eman behar die erabiltzaileei kudeaketa administratiboak modu autonomoan, seguruan eta gidatuan egiteko, eta une oro bermatu behar ditu izapidearen sinpletasuna eta datuen sendotasuna, bai eta araudia erabat betetzea ere, Segurtasun Eskema Nazionalan ezarritakoari jarraikiz.

Erronkak bi alderdi uztartzen ditu: alde batetik, laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzen espezializatutako elkarrizketa eredu bat garatzea eta, bestetik, dokumentuak kudeatzeko geruza adimendun bat ezartzea, informazioa zentralizatzeko eta espediente fluxuaren parte handi bat automatizatzeko. Horren guztiaren helburua da presentzialtasun premia murriztea, erantzun denborak hobetzea, eta komunikazioan izandako akatsen edo ez-egiteen ondoriozko gorabeherak murriztea. Gainera, prozeduren trazabilitatea eta gardentasuna indartzea ahalbidetuko du, bai eta barne egitura operatiboa optimizatzea ere.

Laburbilduz, DSAZAK adimen artifizialeko laguntzaile batekin kudeaketa plataforma bat garatzeko erronka planteatzen du, dirulaguntzen espedienteak eta laguntza publikoen beste deialdi batzuk errazago egin eta aurkezteko. Elkarrengarritasunari eta araudia betetzeari begira, plataforma horrek aukera emango dio administrazio publikoari efizientzia operatiboa ez ezik herritarren eskaerei erantzuteko gaitasuna ere hobetzeko.

2.4 Egungo egoera

Kudeaketa publikoa digitalizazio prozesu betean murgilduta dago, eta prozesu horrek prozedura administratiboak automatizatzea, dokumentuen kudeaketa optimizatzea eta informazioa kudeatzeko sistema aurreratuak hedatzea eskatzen du. Testuinguru horretan, adimen artifizialeko teknologiak eta, bereziki, hizkuntza eredu handiak (LLM) erabiltzeak ahalbidetzen du zeregin errepikakorrek automatizatzea, giza akatsak murriztea eta efizientzia operatiboa nahiz informazio publikoaren sarbidea eta gardentasuna hobetzea. Oinarri horren gainean, sendotzen ari dira elkarriketa txatboten soluzioak, barne sistemekin integratuta, zeinak gai baitira 24x7 arreta eskaintzeko, izapide konplexuak gidatzeko, hizkuntza ugaritan jarduteko eta pribatasuna eta datuak babesteko baldintza zorrotzak betetzeko (DBEO, Espainiako legeria eta AAren alorreko etorkizuneko erregulazioa).

Hala ere, oraindik ere badira mugak; hain zuzen ere, lehendik dauden sistemekiko integrazio eskasa, pertsonalizazio murrizta eta irismen mugatua ageri dituzte zeregin kritikoak automatizatzeko eta araudira egokitzeko. Horrek espazio argi bat irekitzen du plataforma berritzaileentzat, betiere AA sortzailea eta sektore publikora bideratutako arkitektura elkarrengarria konbinatzen badituzte. Aldi berean, garrantzia hartzen du "AA berdeak", zeinaren muina baita ingurumen inpaktua murriztea energiaren aldetik efizienteak diren algoritmoen eta arkitekturen bidez, betiere Europako jasangarritasun digitaleko estrategiekin lerrokatuta. Donostia Sustapenak proposatutakoa bezalako ekimenak trakzio soluzio erreplikagarri gisa planteatzen dira beste administrazio batzuentzat, betiere beren zerbitzuak modernizatu nahi badituzte eta, aldi berean, erantzuna eman nahi badiete XXI. mendeko kudeaketa publikoaren erronka teknologikoei, sozialei eta ingurumenekoei.

3 Merkaturako aurretiko kontsultaren xedea

3.1 Deialdia argitaratzea

Merkaturako Aurretiko Kontsultaren deialdiaren iragarkia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratu eta zabaldu zen 2025eko uztailaren 10ean, 05:03an, lehia ez desitxuratzeko. Argitalpenaren esteka¹.

¹ https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/merkatuari-aurretiako-kontsulta-donostiako-sustapeneko-arreta-adimenduneko-zerbitzua-diseinatu-eta-garatzeko-zerbitzuak-kontratatzeari-buruz/webkpe00-kpeperfi/eu/

Kontsultaren xedea: *Merkaturako Aurretiko Kontsulta egitea, Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimenduna (DSAZA) proiektuaren zehaztaperen teknikoak eta funtzionalak definitzeko, zeinaren helburua baita erabiltzaileei arreta emateko sistema integral eta eskalagarri bat lortzea, erakundearen jarduera eremuak barnean hartuta.*

Iragarki horretan informazio xehatua jasotzen zuen dokumentu bat argitaratzen zen, alderdi hauek jasotzen zituen:

- 1.- Merkatutarako Aurretiko Kontsulta deitu duen erakundeari buruz**
 - 2.- Berrikuntzaren Erosketa Publikoa**
 - 3.- Merkatutarako Aurretiko Kontsulta**
 - 3.1.- Merkatutarako Aurretiko Kontsultaren xedea
 - 3.2.- Merkatutarako Aurretiko Kontsultaren helburuak
 - 3.3.- Merkatutarako Aurretiko Kontsultaren parte hartzeko prozedura
 - 3.3.1.- Proposamenak aurkeztea
 - 3.3.2.- Epea
 - 3.3.3.- Publizitatea eta informazioa
 - 3.3.4.- Hizkuntza
 - 3.3.5.- Datu pertsonalak babestea
 - 3.3.6.- Konfidentzialtasuna
 - 4.- Proposatutako proiektua: Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimenduna**
 - 4.1.- Aurrekariak
 - 4.2.- Proiektuaren deskribapena
 - 4.3.- Proiektuaren etapak
 - 4.3.1.- 1. etapa – Prototipoa garatzea
 - 4.3.2.- 2. etapa – Barne pilotajea eta eskalatzea
 - 4.3.3.- 3. etapa – Baliozkotze fasea
 - 4.4.- Proiektuaren heldutasun teknologikoa
 - 4.5.- Aurrekontua
 - 4.6.- Proiektuaren iraupena
 - 5.- Talde teknikoa**
 - 6.- Merkatutarako Aurretiko Kontsultaren emaitza**
 - 7.- Proiektuaren lizitazio potentziala**
 - 8.- Kontratua egikaritzea**
- I. ERANSKINA. Erabiltzaileei laguntzeko elkarriketa eredua eta dokumentu kudeaketa adimenduna (Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimenduna)**
Premia publikoa justifikatzea
Egungo egoera
Eduki berritzailea
Espero diren funtzionaltasunak

1. taula. Merkatutarako Aurretiko Kontsultaren aurkibidea

Orrialdea: 9 / 33

Horretaz gainera, II. eranskina aurkeztu zen, zeinean formulario/txantilo bat ematen baitzen interesdun guztiek —pertsona fisiko zein juridiko— kontsultan ekarpenak egin eta konponbide berritzaileak aurkeztu ahal izateko, 2025eko irailaren 30era arte ezarritako epearen barruan.

Formulario horri esker, beharrezko identifikazio datuak jaso eta planteatutako galderei erantzun ahal izan zitzairen, eta erakunde parte hartzaileek proposamen gisa aurkeztu nahi zituzten dokumentuak erantsi ahal izan zituzten.

Hala, betetzen zen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 115.1 artikuluan xedatutakoa:

“Kontratazio-organoak, kontsulta hasi baino lehen, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo maila autonomikoan baliokidea den informazio zerbitzuan kokatutako kontratatzailearen profilean argitaratuko ditu haren xedea, hura hasteko eguna eta kontsultan parte hartuko duten hirugarrenen izenak, izan daitezkeen interesdun guztiek sarbidea izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan ditzaten”.

3.2 Proiektuari buruzko informazio jardunaldiak

2025eko uztailaren 10ean, proiektua testuinguruan kokatzeko aurrez aurreko saio bat egin zen, agenda honi jarraikiz:

- Ongietorria eta DSAZA proiektuarekin lotutako Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren aurkezpena.
- Proiektuaren erronka teknologikoaren deskribapena.
- Nola parte hartu merkaturako aurretiko kontsultan eta hurrengo urratsetan.
- Elkarrizketa irekia merkatuarekin.

2. taula. Merkaturako Aurretiko Kontsulta aurkezteko saioaren agenda

Aurkezpen jardunaldiaren aurrez aurreko saiora 11 pertsona joan ziren. Saio horren aurretik, Donostia Sustapenak dagokion informazioa argitaratu zuen bere webgunean, eta proposamenak egiteko beharrezkoak diren dokumentuetarako sarbidea ez ezik horiek aurkezteko jarraibideak ere eman zituen ([Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren ekimena](#)).

3.3 Merkaturako Aurretiko Kontsultaren mugarriak

Jarraian, Merkaturako Aurretiko Kontsultaren datak eta epeak zehazten dira:

- Merkaturako Aurretiko Kontsultaren deialdia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argiratu zen, 2025eko uztailaren 10ean.
- Erantzunak eta kontsultak jasotzeko epea 2025eko uztailaren 10ean hasi zen, fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoaren bidez.
- Kontsultak eta erantzunak jasotzeko epea 2025eko irailaren 30ean amaitu zen.

Orrialdea: 10 / 33

- Elkarrizketak bitarteko telematikoen bidez egin ziren, 2025eko urriaren 29tik azaroaren 14ra.

3.4 Egindako galderak

Merkaturako Aurretiko Kontsultan egindako galderak erakunde interesdunei helarazi zitzaizkien, deialdiaren dokumentuaren bidez. Txosten honen I. eranskinean daude.

3.5 Talde tekniko arduraduna

Merkaturako Aurretiko Kontsulta hau espedienteaz arduratzen den talde tekniko baten bidez egin eta garatu zen, zeina Donostia Sustapeneko langileek osatzen baitute. Era berean, aholkulari tekniko adituak parte hartu zuten, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 115.1 artikuluan xedatutakoaren arabera; zehazki, Zabala Innovation aholkularitza etxeak parte hartu zuen.

“Horretarako, kontratazio-organoak hirugarrenen aholkuaz baliatu ahalko dira. Hirugarren horiek adituak edo agintari independenteak, lanbide-elkargoak edo, kasu berezietan, merkatuan jarduten duten operadore ekonomikoak izan ahalko dira”.

Talde tekniko hori arduratu zen, besteak beste, zabalkundeaz, informazioa biltzeaz, proposamenak aztertzeaz eta etorkizuneko lizitaziorako ondorioak ateratzeaz.

3.6 Jasotako proposamenak

Merkaturako Aurretiko Kontsultaren deialdia irekia izan zen, zehaztutako erronkan parte hartu nahi zuten enpresei zuzendua. Jasotako proposamen guztiak baliozkotzat jo ziren aztertzeko.

Jarraian, Merkaturako Aurretiko Kontsultan parte hartzen duten enpresak adierazten dira, erantzunak bidaliz, alde batetik, parte hartu duten enpresei ikusgarritasuna emateko eta, bestetik, jarduerak batera aurkezteko lankidetzaz sustatzeko.

Soluzioak aurkezteko emandako epean, enpresa hauek (hurrenkera alfabetikoan) erantzun zieten planteatutako galdera guztiei edo batzuei:

Zk.	Parte hartze mota	Parte-hartzailea
1	Banakoa	4i INTELLIGENT INSIGHTS SL
2	Baterakoa	- ALTEN SOLUCIONES PRODUCTOS AUDITORÍA E INGENIERÍA SAU - THEWHITEAM CONSULTING SL
3	Baterakoa	- DIGITAL EXPERIENCE SL (DATA-KA) - THE KUDE COMPANY SL (KUDE)


4	Baterakoa	<ul style="list-style-type: none"> - INTERAKZIO BISUAL ETA KOMUNIKAZIOKO TEKNOLOGIEN FUNDAZIO ZENTROA (VICOMTECH) - TREBE LANGUAGE TECHNOLOGIES SL (TREBE) - INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU LINUX SL (IRONTEC)
5	Baterakoa	<ul style="list-style-type: none"> - TEKNEI TALDEA - DATUA IA SA
6	Banakoa	MULTIVERSE COMPUTING SL
7	Banakoa	OESIA NETWORKS SL
8	Banakoa	RIAM INTERLEARNING LAB SL (GNOSS)
9	Banakoa	SCILING SL
10	Banakoa	THE FLIGHT OF IRWIN SL (SCOTT & IRWIN)

3. taula. Erronkan parte hartu duten erakundeak

Proposamenak jaso ondoren, aldez aurreko berrikuspen bat egin zen, lehenik eta behin, formularioak behar bezala bete ziren egiaztatzeko, eta, bigarrenik, parte hartzen duten erakundeen ikuspegi orokorra emateko, bai eta proposamenen irismena eta helburuak aztertzeko ere.

Alderdi hauek nabarmendu ziren:


- Jasotako proposamenak: **10 proposamen** aurkeztu ziren guztira:
 - Proposamenak egin zituztenen konfigurazioari dagokionez
 - 4 baterako proposamen
 - 6 proposamen indibidual
- Parte hartu zuten erakundeak: orotara, **15 erakundek parte hartu zuten, guztiak Espainiako pertsona fisikoak edo juridikoak**; haien artean zeuden **3 startup, 7 enpresa txiki eta ertain, 4 enpresa handi eta ikerketa edo berrikuntza zentro 1**.



2. irudia. Parte hartu zuten erakunde motak

- **Jarduera sektorea:** erakundeen jarduera sektoreak askotarikoak dira, baina **informatikako eta ingeniartzako aholkularitzaren, instalazio elektrikoaren eta telekomunikazioen esparruetara bideratuta daude.**
- **Fakturazioa:** erakunde parte hartzaileen azken hiru urteetako fakturazio agregatua **100.000 euro eta 500 milioi euro artekoa** da. Aurkeztutako profilen arteko sakabanaketa oso handia da: erakundeen % 13k milioi bat euro baino gutxiago fakturatzen dute, eta beste % 13k, berriz, 100 milioi euro baino gehiago².

² Fakturazio zenbatekoak aitortu zituzten erakunde parte hartzaileetatik ateratako datuak.



3. irudia. Fakturazioaren banaketa 3 urtean

- Egikaritzeko aurreikusitako denborak: proposamen bakoitzetik jasotako informazioaren arabera, **proiektua gauzatzeko 11 eta 24 hilabete bitarteko denborak planteatu dira 1., 2. eta 3. faseetarako** (iraupen hori gutxi gorabeherakoa da).
- Aurrekontuaren zenbatekoa: **70.000 euro eta 1,5 milioi euro arteko tartea planteatu da formularioan orientazio gisa adierazitako hiru faseetarako**:
 - **1. fasea. Prototipoa garatzea.**
 - **2. fasea. Barne pilotajea eta eskalatzea.**
 - **3. fasea. Baliozkotze fasea.**
- Proposamen partzialak edo osoak: kontsultaren egitura dela eta (erronka bakar batean antolatua), proposamen ugari jaso dira, osorik heltzen dietenak planteatutako helburu eta funtzionaltasunei, Merkaturako Aurretiko Kontsultaren argitalpenarekin batera kaleratu zen I. eranskineko 1.4 atalean ("Espero diren funtzionaltasunak") deskribatuta bezala.

3.7 Proposamenen ebaluazioa

3.7.1 Eztabaida teknikoa: elkarrizketak

Proposamenak jaso eta azterketa zehatza egin ondoren, Donostia Sustapenak zenbait elkarrizketa deitu ditu, argibideak behar zituztenak hobeto ulertzeko.

Elkarrizketak egin ondoren, Donostia Sustapenak, talde teknikoaren bidez, idatzizko informazio gehigarria eskatu zien parte hartu zuten zenbait erakunderi, zenbait alderdi funtzional eta

Orrialdea: 14 / 33

ekonomiko zehazteko, bai eta hedapenarekin loturikoak argitzeko ere. Ezarritako epean, SCILING, DATA-KA/KUDE eta VICOMTECH/TREBE/IRONTEC erakundeek bidali zuten dokumentazio osagarria. Informazio hori analisisian sartu da, Merkaturako Aurretiko Kontsultaren formularioekin eta egindako elkarrizketen aktekin batera.

4 Merkaturako Aurretiko Kontsultaren emaitza

Merkaturako aurretiko kontsultari esker, Donostia Sustapenak ingeniartzako eta software garapeneko enpresek aurkeztutako zenbait proposamen bildu ditu. Proposamen horiek hurbilketa teknologiko eta antolatzaile desberdinetatik heltzen diote planteatutako erronkari. Oro har, ekarpen horiek egungo egoeraren ikuspegi zabala eta adierazgarria eskaintzen dute, Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimenduna (DSAZA) proiektuari erantzuteko beharrezkoak diren gaitasunei dagokienez, eta oinarri sendoa dira prozesuaren hurrengo faseetan erabakiak hartzeko.

Ateratako ondorioak hiru informazio iturri nagusiren azterketa integratuan oinarritzen dira. Alde batetik, Merkaturako Aurretiko Kontsultaren esparruan parte hartzen duten erakundeek bidalitako inprimakiak, proposatutako konponbideak, horien irismen funtzionala eta ezaugarri tekniko nagusiak deskribatzen dituztenak. Bestetik, kontsultan zehar izandako elkarrizketen aktei esker, informazio hori sakondu eta zehaztu ahal izan da, eta soluzioen heldutasun mailari, hedapen baldintzei, eredu ekonomiko-finantzarioei eta lotutako antolakunde inplikazioei buruzko alderdiak sartu dira. Azkenik, kontuan hartu da parte hartu duten erakunde batzuek Talde Teknikoak eskatuta igorritako dokumentazio osagarria (bereziki SCILING, DATA-KA/KUDE eta VICOMTECH/TREBE/IRONTEC erakundeen bidalitakoa).

Informazio multzo horretatik abiatuta, analisisa egituratzeko DSAZA proiekturako espero diren funtzionaltasunak hartu dira ardatz gisa, kontsultako dokumentazioan definitzen diren moduan. Fokua ez da izan soluzioen deskribapen indibiduala; aitzitik, helburua izan da identifikatzea merkatuko erantzunek zenbateraino estal ditzaketen funtzionaltasun horiek, eta identifikatzea zein diren esparru bakoitzeko hurbilketa tekniko nagusiak.

Dokumentuak kudeatzeko modulu adimenduna

1. Sailkapen automatiko adimenduna

Dokumentuen sailkapen automatikoa —edukiaren, testuinguruaren eta metadatuaren arabera—, ondo estalita dago proposamenen multzoan. Behin eta berriz deskribatzen dira hizkuntza naturala prozesatzeko teknikan eta sailkapen ereduetan oinarritutako irenste eta orkestrazio dokumentaleko osagaiak, ahalbidetzen dutenak dokumentu mota identifikatzea eta dokumentuaren izaerarekin koherentea den kategoria bat esleitzea.

Zenbait kasutan, funtzio hori mikrozerbitzu edo sailkapen eragile espezifikoetan gauzatzen da, zeinek dokumentu fluxuaren sarreran jarduten baitute; hala, metadatuak aberasten eta etiketa semantikoak sortzen dituzte, eta, ondorioz, erraztu egiten dira ondorengo bilaketa eta beste sistema batzuekiko integrazioa. Taxonomia horien xehetasun zehatzak, oro har, ezarpen

faserako geratzen dira, baina garbi dago badela DSAZaren erronkak planteatzen duen sailkapen automatikoa hedatzeko adina gaitasun teknologiko.

2. Datuak automatikoki erauzte eta prozesatzea

Informazio erabakigarria automatikoki ateratzea da proposamenetan aztertutako alderdi teknologikoki sendoenetako bat. Proposamen gehienek badituzte OCRak, egiturak ezagutzeko ereduak eta baliozkotze arauak konbinatzeko gai diren motorrak, eta, hala, ahalbidetzen dute identifikatzaileak, datak, zenbatekoak, kontratuen zehaztapenak eta halako datuak automatikoki identifikatzea eta egiaztatzea, dokumentazio oso heterogeneotik abiatuta.

Soluzio batzuek maila bat gehiago egiten dute aurrera, eta ebazpenen zirriborroak sortzeko, aurkeztutako dokumentu bakoitza dagozkion arauzko baldintzekin lotzen duten ebidentzien grafoak eraikitze edo tamaina handiko espedienteen laburpenak egiteko erabiltzen dituzte ateratako datu horiek, hizkuntza eredu aurreratuen bidez. Ikuspegi horrek erantzun zuzena ematen dio erronkaren asmo bikoitzari; izan ere, datuak modu eraginkorrean biltzeaz gainera, modu adimentsuan ustiatzen ditu administrazio erabakiak oinarritzeko eta arintzeko.

3. Bilaketa adimenduna hizkuntza naturalarekin

la guztien izendatzaile komuna da dokumentu oinarriaren gainean hizkuntza naturalean bilatzeko gaitasuna. Deskribatutako arkitekturak sorkuntza bidez areagotutako berreskuratzean oinarritu ohi dira: dokumentuak motor semantikoetan edo oinarri bektorialetan txertatzen dira, eta kontsultak hizkuntza naturalean formulatzen dira. Hala, testuingurua duten erantzunak ematen dira, jatorrizko dokumentuetan ainguratuta.

OCRarekin integratzeko modua xehatuta agertzen da zenbait proposamenetan, eta horrek aukera ematen du hasieran eskuragarri zeuden dokumentuak eransteko, irudi gisa edo eskaneatuta. Hala, dokumentu gordailu osoa esanahiaren arabera kontsulta daiteke, ez gako hitzen arabera bakarrik, Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimendunaren proiektuak aurreikusten duen funtzionaltasunaren ildotik.

4. Dokumentuaren bizi zikloa kudeatzea

Dokumentuaren bizi zikloaren kudeaketa (bertsionatua, artxibatua, ezabatze segurua eta abar) sakontasun desberdinarekin egiten da, soluzio motaren arabera. Proposamena dokumentuak edo espedienteak kudeatzeko plataforma tronkal gisa planteatzen denean, esplizituki deskribatzen dira bertsiok kontrolatzeko mekanismoak, atxikipen politikak eta araudiarekin lerrokatutako artxibatze eta ezabatze prozesuak.

Lehendik dauden sistemen gaineko adimen geruza gisa planteatzen diren soluzioetan, kudeaketa nagusia erakundearen egungo plataformari dagokio. Proposatutako sistemen helburua da informazioaren sailkapena, bilaketa eta ustiapena hobetzea. Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimendunaren testuinguruan, horrek esan nahi du funtzionalitate horren estaldura mailan eragina izango duela etorkizuneko proiektuaren irismena definitzeko moduak,

eta, bereziki, gaur egun Donostia Sustapenean ezarrita dauden tresnak ordeztu edo osatu egingo diren zehazteak.

5. Adimen artifizialean oinarritutako segurtasuna eta kontrola

Proposamenek etengabeko arreta eskaintzen diete segurtasunari, datuen babesari eta trazabilitateari, betiere Segurtasun Eskema Nazionalak eta DBEOk diotenarekin bat etorriz. Ohikoa da datu pertsonalak AA eredu bidez tratatu aurretik anonimizatzeke mekanismoak aurkitzea, bai eta gobernantza perimetro espezifikoak ere, ereduetan sartzen den informazioa eta horiek sortzen dituzten erantzunak iragazteko.

Arkitektura batzuek pribatutasuna jagozteko eta edukia zaintzeko osagai esplizituak dituzte, datu sentikorren esposizioa saihesteko eta eredu sortzaileen erantzun ez-egiaztagarriak edo desegokiak kontrolatzeko. Baimenen kudeaketa direktorio korporatiboetan eta sarbideen eta ekintzen erregistro zehatz batean oinarritzen da eskuarki, eta horrek beharrezko trazabilitatea ematen du. AA bidez dokumentazio sentikorra automatikoki detektatzea xehetasun gutxiagorekin aipatzen da, baina koherentea da zenbait soluziotan deskribatutako edukia aztertzeke eta sailkatzeko gaitasunekin.

6. Txatbotak eta laguntzaile birtualak integratzea

AA oinarritutako laguntzaile birtualak dira proposamen guztien beste ardatz komun bat. Elkarrizketa interfaze horiek sarrera puntu gisa jarduten dute barneko langileentzat zein herritarrentzat, eta dokumentu basera eta erakundearen sistemetara konektatuta egoten dira bilaketak errazteko, dokumentuak berreskuratzeke, araudia azaltzeke edo sortzen laguntzeke.

Laguntzaile horiek zenbait kanaletan egon ohi dira eskuragarri (webgunea, txata eta, kasu batzuetan, ahotsa), eta dokumentu corpusaren berreskurapen semantikoarekin konbinatutako hizkuntza ereduak erabiltzen dituzte. Praktikan, jakintza instituzionalerako sarbide bihurtzen dira, eta hori bat dator guztiz Donostia Sustapeneko Arreta Zerbitzu Adimendunaren ikuspegiarekin.

7. Lan fluxuak iragartzea eta automatizatzea

Dokumentu laneko fluxuen ondo jasota dago automatizazioa. Zenbait soluziok prozesuak orkestratzeko motorrak, negozio arauak eta RPA biltzen dituzten integrazioak daukate, eta, hala, kateatu egiten dira sailkatzeko, baliozkotzeko, berrikusteko eta jakinarazteke egitekoak. Era berean, espedienteen egoerak eta epeak kudeatzen dira.

Zatirik aurreikusgarriena (patroiak detektatzea, botila lepoak aurreratzea eta fluxuetan doikuntzak proposatzea) modu orokorragoan aipatzen da, normalean prozesuen analitika aurreratuaren barnean. Alderdi hori teknologikoki heldua da.

8. Analisi aurreratua eta kontrol panelak

Dokumentu jarduerari aplikatutako kontrol panelen eta analisi aurreratuko gaitasunak erabiltzea da aztertutako proposamenetan identifikatutako elementu garrantzitsuenetako bat.

Orrialdea: 17 / 33

Aginte taulak planteatzen dira, dokumentu bolumenak, izapidetze denborak, lan kargak, errore edo zuzenketa tasak, eta laguntzaile birtualen funtzionamenduari eta jardunari lotutako adierazleak monitorizatzera bideratuta.

Ikuspegi teknikitik, panel horiek datu azpiegituretan oinarritzen dira, hala nola *data warehouse*tan, *data lake*tan edo plataforma operatiboekin integratutako gordailu analitikoetan. Ikuspegi horrek aukera ematen dio erakundeari prozesuak kudeatzeko, jarraipena egiteko eta etengabe hobetzeko metrika sendoak eta ustiagarriak edukitzeko, DSAZaren erronkan zehaztutako itxaropen eta helburuekin bat.

9. Eleaniztasuna eta itzulpen automatikoa

Zenbait hizkuntza tratatzeko aukera interakzio mailan konpontzen da batez ere. Soluzio gehienek gaztelaniaz eta euskaraz behintzat jarduteko gai diren morroiak eta interfazeak biltzen dituzte, eta kasu batzuetan ingelesa ere sartzen dute, hizkuntza eleanitzeko eruedetan eta hizkuntza bakoitzera egokitutako ahots sintesi eta errekonozimenduko teknologietan oinarrituta.

